BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO

214. zk. 2026, azaroak 06. Ostirala 1. orr.

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Ordenantza fiskalaren aldaketako iragarkia

Basauriko Udalaren Udalbatzak, 2027ko urriaren 29a egindako ohiko osoko bilkuran, behin-behineko onespena eman zien honako Ordenantza Fiskala eta prezio publiko:

1. Onespena ematea Kudeaketa, bilketa eta ikuskapenari buruzko 1. Ordenantza Fiskal orokorraren aldaketari.
2. Onespena ematea Ondasun higiezinen gaineko zerga arautzen duen 3. Ordenantza Fiskalaren aldaketari.
3. Onespena ematea Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen 4. Ordenantza Fiskalaren aldaketari.
4. Onespena ematea Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen 5. Ordenantza Fiskalaren aldaketari.
5. Onespena ematea Eraikuntzen, instalazioen eta lanen gaineko zerga arautzen duen 6. Ordenantza Fiskalaren aldaketari.
6. Onespena ematea Hirigintzako dokumentazio zerbitzua eskaintzeagatiko zerga arautzen duen 7. Ordenantza Fiskalaren aldaketari.
7. Onespena ematea Ibilgailuak ibilgetu, krokatu eta bide publikotik erretiratzeko zerbitzua eskaintzeari dagokion tasa, hala nola, horiek udal lokaletan egoteari dagokiona arautzen duen 8. Ordenantza Fiskalaren aldaketari.
8. Onespena ematea Estolderia eta ur hartunearen zerbitzuak eskaintzeagatiko tasa arautzen duen 9. Ordenantza Fiskalaren aldaketari.
9. Onespena ematea Agiri administratiboak luzatzeari buruzko tasa arautzen duen 10. Ordenantza Fiskalaren aldaketari.
10. Onespena ematea Udal hilerriko zerbitzuak eskaintzeagatiko tasa arautzen duen 11. Ordenantza Fiskalaren aldaketari.
11. Onespena ematea Auto-taxientzako lizentzia eta baimen administratiboak emateagatik dagoen tasa arautzen duen 12. Ordenantza Fiskalaren aldaketari.
12. Onespena ematea Zarama biltzeko zerbitzua eskaintzeagatiko tasa arautzen duen 13. Ordenantza Fiskalaren aldaketari eta inposatzea.
13. Egonaldi turistikoen gaineko zerga arautzen duen 14. Ordenantza Fiskalaren hasierako onarpena eta ezarpena.
14. Onespena ematea Euskara irakasteko zerbitzuak, etxez etxeko eta hirugarren adinekoentzako laguntza eta kultura- eta kirol-zerbitzuak emateagatiko tasak arautzen dituen 15. Ordenantza Fiskalaren aldaketari.
15. Onespena ematea Ordenantza honek arautzen ditu, udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxu bereziagatik dauden tasak arautzen dituen 16. Ordenantza Fiskalaren aldaketari.
16. Jabariaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak arautzen dituen 16.H Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onestea.
17. Onespena ematea Udaltzaingoaren zerbitzu bereziak eskaintzeagatiko tasak arautzen duen 17. Ordenantza Fiskalaren aldaketari.
18. Onespena ematea Kontrolatu gabeko abereak eta etxeko animalia abandonatuak jasotzeko zerbitzu publikoa eskaintzeagatik ezartzen diren tasak arautzen duen 19. Ordenantza Fiskalaren aldaketari.

eek: BAO-2026a214-(II-5839)

19. Onespena ematea Aurretiazko jakinarazpena edota erantzukizun-adierazpena behar duten establezimenduak ireki osteko kontrola aurrera eramateko udal jarduerengatiko tasa arautzen duen 20. Ordenantza Fiskalaren aldaketari.
20. Onespena ematea Lizentziaren menpe dauden jardueren kontrola egiteko udal jarduerari dagokion tasa arautzen duen 21. Ordenantza Fiskalaren aldaketari.
21. Onespena ematea Ordenantza honek prezio publikoak arautzen ditu, hain zuzen, zerbitzuak eskaintzeagatik edo udal jarduerak egiteagatik arautzen dituen 22. Ordenantza Fiskalaren aldaketari.
22. Onespena ematea Kultura politikako arloak antolatutako prestakuntza edo jardueretara joateagatiko prezio publikoak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren aldaketari.
23. Onespena ematea Udalekuetan parte hartzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren aldaketari.
24. Onespena ematea Musika-eskolan prestakuntzara joateagatiko prezio publikoak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren aldaketari.
25. Onespena ematea, Udal euskaltegian prestakuntzara joateagatiko prezio publikoak arautzen dituena Ordenantza Fiskalaren aldaketari.

Erabaki hau jendaurreko jartzen da, interesaturik leudekeenak espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazio eta alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hogeita hamar laneguneko epean. Horrela aurreikusten du Toki Ogasunak arautzen dituen azaroaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluak, eta Toki Erregimena arautzen duen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluak.

Adierazitako epea igarotakoan, Udalbatzak aurkeztutako erreklamazioak edo iradokizunak aztertu, eta dagozkion behin betiko erabakiak hartuko ditu. Adierazitako epe horretan ez balitz erreklamaziorik aurkeztuko, ordura arte behin-behinekoa litzatekeen erabakia behin betiko bihurtuko da.

Basaurin, 2026ko urriaren 29an.—Alkatea, Asier Iragorri Basaguren

eek: BAO-2026a214-(II-5839)